

Alkatetza Saila
Berdintasunerako Zerbitzua

Santa Maria kalea, 11 (Etxanobetarren etxea)
01001 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 16 13 45
Fax: 945 16 13 55

igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org
www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

Gasteizko udalerrian emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean jarduerak eta proiektuak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdi publikoa. 2014ko ekitaldia.

**VITORIA
GASTEIZ** 
green capital 



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Gasteizko udalerrian emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean jarduerak eta proiektuak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdi publikoa. 2014ko ekitaldia.

2014ko otsailaren 21ean egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko udalerrian 2014ko ekitaldian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean jarduerak eta proiektuak bideratzeko diru-laguntzak emateko deialdi publikoa.

ATARIKOA

Gizonek eta emakumeek gizartean izan ohi duten egitekoa asko aldatzen ari da azken hamarkadetan; izan ere, gizartean aldaketa onuragarriak gertatu dira bizitza publikoaren eta pribatuaren alor ezberdinetan emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko. Aldaketa horiek ez ziren posible izango mugimendu feministaren eta emakumeen elkartearen funtsezko borroka eta ekarpenik gabe, ez eta berdintasunerako aurrerabidea gauzatzeko anonimoki lanean diharduten emakume —eta gizon— guztien ahaleginik gabe ere. Berdintasunak, gainera, bai emakumeei bai gizonei egiten die mesede, eta gizarte justu eta berdinzaleagoa lortzeko apustu zabalago baten zatia da.

Lortutakoetatik abiatu behar dugun arren, esan beharra dago genero adierazleek erakusten digutela pertsonen artean eta gizartean botere harremanak asimetrikoak direla oraindik, emakumeak gizonekiko desberdintasun egoeran geratzen direlarik hainbat arlotan: emakumeak eskubide, aginte, baliabide eta onura sozial eta ekonomikoetara iristea, horiek baliatzea eta horien kontrola izatea; emakumeen eta gizonen garapen pertsonala; ongizatea eta indarkeriarik gabeko bizitza; erabakiak hartzea; lan merkatua; gizartean eta politikan parte hartzea; etxeko lanak eta zaintza lanak; denboraren erabilera, eta abar.

Hori dela eta, aurrerapen garrantzitsuak gorabehera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oraindik lortu gabeko helburua da. Aginte publikoak eta gizartea horretan ari dira, baina lortu ahal izateko inplikazio eta konpromiso handiagoak behar dira, Administrazioarena ez ezik, baita erakunde, elkarte eta herritarrena ere.

Horren harira, bere lurraldearen eta eskumenen barruan, Gasteizko Udalak diru-laguntzetarako deialdi hau sustatzen du, Gasteizko udalerrian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko jarduerak eta proiektuak bideratzeko.

Deialdi honek bere egiten du Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldarrikatzen duen berdintasun kontzeptua, hau da, emakume eta gizonen arteko berdintasuna era zabalean hartu beharra; izan ere, berdintasun horrek, eskubideak, agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiapuntu diren baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatu eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzak ere ukitzen ditu. Halaber, berdintasun horrek emakumeen eta gizonen aniztasuna errespetatzen du, eta horien berezitasunak integratzen ditu, gaur egun gizonen eredia ezarri eta orokortzeko zabaldu den joera zuzentze aldera. Bestetik, kontuan izan behar da genero ezberdintasunaz eta bereizkeriaz gain, beste

zirkunstantzia batzuk (klasea, adina, ezintasuna, sexu aukera, immigrazioa, etnia, eta abar) gerta daitezkeela eta horiek bat egitean bereizkeria aniztu egiten dela, edo egin daitezkeela. Horrek ondorio kaltegarriak izan ditzake emakumeen posizioan edo bizi baldintzetan, eta horrenbestez, berez dagozkien herritar eskubideez osorik baliatzean, eta beraz, emakume guztien berdintasuna –bai eta gizonena– lortzeko helburuari begira aurrerapena moteldu.

Diru-laguntzetarako deialdi honek bi atal bereizten ditu diruz lagun daitezkeen proiektuei eta laguntza eska dezaketen entitateei dagokienez. Batetik, emakumeen elkarteei Martxoaren 8aren inguruan –Emakumeen Nazioarteko Eguna– jarduerak antolatzen lagundu nahi die; bestetik, elkarte sareari emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduera eta proiektuak bideratzen lagundu nahi die.

Bigarren jarduera blokeari dagokionez, hau da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburuan aurrera egiten laguntzen duten jarduera eta proiektuei dagokienez, deialdiak herritarrei zuzendutako jarduerak eta proiektuak sustatu nahi ditu, baina baita elkartearen antolakuntza, funtzionamendua eta jarduna genero berdintasunaren printzipioari hobeto egokitzen laguntzeko jarduerak ere.

GASTEIZKO UDALERRIAN EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALORREAN JARDUERAK ETA PROIEKTUAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen helburua da Gasteizko Udalak irabazi asmorik gabeko emakume-elkarteei emango dizkien diru-laguntzak arautzea, Martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) dela eta 2014an jarduerak antola ditzaten, eta oro har, irabazi-asmorik gabeko elkarteei, 2014ko ekitaldian emakume eta gizonen berdintasunean aurrera egiten laguntzeko jarduerak eta programak egiteko.

2. Diru-laguntza emateko prozedura

Bi esleipenetan banatuko dira diru-laguntzak: batetik, Martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) dela eta jarduerak antolatzeko diru-laguntzak esleituko dira; bestetik, emakume eta gizonen berdintasunean aurrera egiten laguntzeko jarduerak eta programak egiteko diru-laguntzak. Bata zein bestea behin bakarrik egingo dira, elkarren arteko lehia baliatuz.

3. Diru baliabideak

- 3.1.** Gasteizko Udalak hogeita mila (20.000,00) euro bideratuko du guztira 2014an Gasteizko udalerrian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko

jarduerak eta proiektuak bideratzeko diru-laguntzak emateko deialdi honetara, 2014ko ekitaldiko 01 60 3101 4 8139 aurrekontu-partidaren kontura.

- 3.2. Zenbateko horretatik, sei mila (6.000,00) euro Martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) dela eta antolatzen diren jarduerak diruz laguntzeko izango dira, eta hamalau mila (14.000,00) euro, gizon eta emakumeen berdintasunaren alorreko jarduerak eta proiektuak diruz laguntzeko.

Baldin eta Martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) dela eta antolatzen diren jarduerak diruz laguntzeko zenbatekoa agortzen ez bada, eman gabeko zenbatekoa 2014ko ekitaldian emakume eta gizonen berdintasunaren alorreko jarduerak eta proiektuak diruz laguntzeko bideratuko da.

4. Onuradunak

- 4.1. Deialdi honen onuradun izan daitezke emakumeen elkarteak zein emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ibilbidea egiaztatzen duten bestelako elkarteak.
- 4.2. Martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) dela eta 2014an jarduerak antolatzeko, irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarreek eskatu ahalko dituzte deialdi honetan araututako diru-laguntzak, baldin eta Euskadiko Elkartearen Legearen -7/2007 legea, ekainaren 22koa- aplikazio-eremuan sartzen badira, Herritar Erakundearen Udala Erregistroan izena emana dutelarik eta beren jardueraren-eremua Gasteizko udalerrian dutelarik.
- 4.3. 2014ko ekitaldian emakume eta gizonen berdintasunean aurrera egiten laguntzeko jarduerak eta proiektuak egiteko, irabazi-asmorik gabeko elkarteek eskatu ahalko dituzte deialdi honetan araututako diru-laguntzak, baldin eta Euskadiko Elkartearen Legearen -7/2007 legea, ekainaren 22koa- aplikazio-eremuan sartzen badira, Herritar Erakundearen Udala Erregistroan izena emana dutelarik eta beren jardueraren-eremua Gasteizko udalerrian dutelarik.
- 4.4. Berariaz geratuko dira diru-laguntzerako deialdi honetatik kanpo zerga betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituzten elkarteak, edo onuradun izatea debekatzen duten zirkunstantzietakoren batean daudenak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. eta 3 artikuluen arabera.
- 4.5. Deialdi honetatik bazter geratuko dira, halaber, Gasteizko Udalak lehendik emandako beste diru-laguntzaren bat justifikatu gabe duten erakundeak.
- 4.6. Ezin izango dute diru-laguntzarik jaso sexu arrazoiengatiko diskriminazioa dela eta administrazio-bidean edo zigor-bidean zigortuta izan diren elkarteek, ez Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ildotik debeku hori ezarri zaien elkarteek, zigorrak ezarritako epearen barruan, ez eta haien helburuak, onartze edo parte hartze sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo jokabidea emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren kontrakoak direla egiaztatzen denean ere.
- 4.7. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa gauzatzeko ez dira sexuarengatiko diskriminaziotzat joko elkarteek hartutako neurriak baldin eta,

emakumeei eta gizonei tratamendu ezberdina ematea proposatu arren, legearekin eta berdintasun printzipioekin bat badatoz, eta justifikazio objektiboa eta kasu bakoitzean lortu nahi den helburuari egokitua badute. Horrenbestez, ezingo dute diru-laguntzarik jaso beren baitan emakumeen presentzia eta parte hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarteek, baina sexu bakarrek osatzen dituztenek, berriz, eskatu ahalko dute, beren helburu nagusia emakumeen eskubideak eta emakumezkoen zein gizonezkoen aukera eta tratu berdintasuna sustatzea bada.

- 4.8.** Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikulua –23. artikuluekin lotuta– kontuan izanik, diru-laguntza jasotzen duten elkarte mistoek organo erabakitzaileetan emakume eta gizonen presentzia orekatua izan dadin sustatu behar dute, behar diren neurriak hartuz. Sexu bakoitzetik gutxienez % 40ko ordezkari dagoenean jotzen da presentzia orekatutzat. Betebehar hori betetzen ez bada, diru-laguntza osorik edo horren zati bat itzultzeko eska daiteke.

5. Diru-laguntzak har ditzaketen proiektuak

- 5.1.** Martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) dela eta emakumeen elkarteek 2014ko martxoan herritarrei oro har zuzenduta antolatzen dituzten jarduerak, helburu hauekin:
- a_** Emakumeek jasaten dituzten ezberdintasunaren eta bereizkeriaren inguruan herritarrak informatu eta sentsibilizatzea.
 - b_** Genero arloko rol eta estereotipoen nahiz horiek esparru pribatu eta publikoan duten eragin negatiboaz herritarrak informatu eta sentsibilizatzea.
 - c_** Emakumeen jabeak sustatzea, diskriminazio aniztunaren ikuspuntua kontuan hartuta.
 - d_** Diskriminazio aniztuneko egoeran dauden edo horren arriskua duten emakumeen jabeak sustatzea.
 - e_** Emakumeek esparru soziopolitikoan, kulturean, zientzian eta bestelako alorretan historian zehar izan duten eta orain duten parte hartzea agerrarazi eta balioestea.
 - f_** Mugimendu feministaren nahiz emakume elkarten gogoeta eta ibilbidea zabaltzea.
- 5.2.** 2014ko abenduaren 31 baino lehen elkarteek garatzen dituzten jarduerak eta proiektuak, herritarrei zuzendutakoak zein elkartearen antolakuntza, funtzionamendua eta jarduna genero berdintasunaren printzipioari hobeto egokitzen laguntzeko, helburu hauekin:
- a_** Emakumeek jasaten dituzten ezberdintasunaren eta bereizkeriaren inguruan herritarrak informatu eta sentsibilizatzea.
 - b_** Genero arloko rol eta estereotipoen nahiz horiek esparru pribatu eta publikoan duten eragin negatiboaz herritarrak informatu eta sentsibilizatzea.
 - c_** Emakumeen jabeak sustatzea, diskriminazio aniztunaren ikuspuntua kontuan hartuta.
 - d_** Diskriminazio aniztuneko egoeran dauden edo horren arriskua duten emakumeen jabeak sustatzea.

- e_** Emakumeen kontrako indarkeria dela eta herritarren arteko informazioa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta esku-hartzea sustatzeko jarduerak eta proiektuak.
 - f_** Emakumeek esparru soziopolitikoan, kulturean, zientzian eta bestelako alorretan historian zehar izan duten eta orain duten parte hartzea agerrarazi eta balioestea.
 - g_** Mugimendu feministaren nahiz emakume elkarten gogoeta eta ibilbidea zabaltzen duten proiektuak.
 - h_** Gizonak berdintasunaren helburuan inplikatzeko eta, zehazki, etxeko lanei eta zainketari dagokien erantzukizuna banatzea, bai eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioan eta esku-hartzean inplikatzeko ere.
 - i_** Elkartearen antolakuntza eta funtzionamendua genero berdintasunaren printzipioari egokitzea.
 - j_** Berdintasunaren alorreko prestakuntza jarduerak egitea elkarteari berari begira, bai eta beste erakunde eta talde batzuei zein herritarrei zuzenduta ere.
 - k_** Berdintasunaren ikuspegia baliaturik, emakumeen osasuna sustatu eta droga-mendekotasunaren zein bestelako mendekotasunen prebentzioarekin loturikoak lantzen dituzten proiektuak.
 - l_** Baztertuak izateko arriskuan edo ahuldade bereziko egoeran dauden emakumeen laneratzeko errazteko baliabideak, zerbitzuak eta aldi baterako ekintzak abiarazten laguntzen duten proiektuak.
 - m_** Emakumeen beste elkarte batzuekin (udalerrikoak zein udalerritik kanpokoak) informazio- eta esperientzia- trukea ahalbidetu eta errazten duten proiektuak.
- 5.3.** Nornahi **iristeko moduko areto edo guneetan** egin beharko dira proiektuak, diru-laguntza jasotzekotan; hain zuzen ere, Irigarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean (1997ko abenduaren 24ko EHAA) adierazten den moduan, eta hiri-inguruneen, gune publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irigarritasun baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan (2000ko ekainaren 12ko EHAA) garatutako arau teknikoak betetzen direlarik.
- 5.4.** Jarduerak eta proiektuak diru-laguntza jasoko badute, **bi hizkuntza ofizialetan** eman beharko zaie zabalkundea, hau da, **euskaraz eta gaztelaniaz** egin beharko dira herritar guztiei zuzendutako liburuxkak, kartelak, buletinak, blog elektronikoak eta bestelakoak, eta **hizkuntzaren zein irudiaren erabilera ez sexista bermatu beharko da**. Hori ez betetzeak diru-laguntza osorik edo horren zati bat itzuli behar izatea ekar dezake.
- 5.5.** Berariaz balioetsiko da diskriminazio anizkunaren irizpidea eta lana eta familia uztartzen laguntzeko baliabideak kontuan hartzea, dela jarduerak edo proiektuaren zabalkunde materialetan, dela jardueraren beraren garapenean.
- 5.6.** Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuari buruzko datuak jasotzerakoan sexuaren aldagaia sartuko dute sistematikoki elkarte onuradunek. Hori ez betetzeak diru-laguntza osorik edo horren zati bat itzuli behar izatea ekar dezake.
- 5.7. Proiektu hauek ez dira diruz lagunduko:**
- a_** Ikuspegi feminista argirik ez duten edo emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegi argirik adierazten ez duten proiektuak.

- b_** Berdintasunerako Zerbitzuak nahiz emakumeen eta gizonen berdintasunerako programak edo planak garatzen esku hartzen duten bestelako udal zerbitzuek antolatutako enpareko diren proiektuak.
- c_** Eskabidea egiten duen elkarteak diru-laguntza eskatu aurretik gauzatuak dituen proiektuak, ezta hasteko 20 egun natural baino gutxiago falta direla aurkezten direnak ere, salbu eta emakumeen elkarteek Martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) dela eta antolatutako jardueren kasuan. Hala ere, jarduera horiek diru-laguntza eskatu aurretik egin badira ez dira diruz lagunduko.
- d_** Elkarte eskatzailearen bazkideei ez besteri eskaintzen zaizkien proiektuak, baldin eta helburua erakundearen berdintasunaren printzipioari egokitzea ez bada, edo pertsona horiek eragile biderkatzaile gisa arituko direla bermatzen ez bada, hau da, elkartearen barruan edo beste erakunde eta elkartearen barruan berdintasunaren printzipioa garatzen laguntzen ez badu.
- e_** Osorik Gasteizen garatuko ez diren proiektuak.
- f_** Udaleko beste sailen edo zerbitzuren baten deialdiak bere baitan hartzen dituen proiektuak.

6. Eskabideak eta agiriak

6.1. Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte deialdi honetan parte hartu nahi duten elkarteek:

- a_** Eskaera orria (1. eranskina¹).
- b_** Proiektua aurkezteko inprimakia (2. eranskina).
- c_** Eskabidea izenpetzen duenaren ordezkatzeko-ahalmena egiaztatzen duen agiria eta elkartearen lege-ordezkaria den pertsona fisikoaren nortasun agiriaren fotokopia.
- d_** Banketxearen egiaztagiria, kontu zenbakia eta titularraren izena agertzen dituen (elkarteak berak izan behar du titular).
- e_** Elkartearen estatutuen fotokopia.
- f_** Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.
- g_** Gasteizko Herritar Erakundearen Udala Erregistroko izen-emate zenbakia berariaz adierazi beharko da.
- h_** Gasteizko Udalarari baimena emateko idazkia, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskura ditzan (6. eranskina). Hala ere, eskatzaileak uko egin diezaioke berariaz baimen hori emateari; kasu horretan, eskatutako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu diru-laguntzarako eskabidearekin eta gainerako agiriekin batera.
- i_** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluetan jasotako egoeretako batean ere ez daudela adierazten duen erantzukizunpeko aitortpena (7. eranskina).

Eskabidea egiten duten elkarteek ez dute e), f) eta g) ataletan adierazitako agiriak aurkeztu beharrik izango, baldin eta Berdintasunerako Zerbitzuak lehendik baditu eta aldatu ez badira.

¹ Eranskin guztiek izenpea eta eskabiadea egiten duen elkartearen zigilua eraman beharko dute.

- 6.2. Beste agiri batzuk eskatu ahalko ditu Berdintasunerako Zerbitzuak, behar bezala justifikatzeko diru-laguntza eskabidearen ebazpena.

7. Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea

- 7.1. Hogeita hamar egun naturalekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
- 7.2. Ezinbestekoa izango da diru-laguntza jasotzekoa den proiektua egitea aurreikusi den eguna baino **20 egun** lehenago aurkeztea eskabidea, emakume elkarteek Martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) dela eta antolatutako ekintzen kasuan izan ezik.
- 7.3. Agiri guztiak izan beharko dira **kopia konpultsatuak**; elkarteak jatorrizkoak gordeko ditu finantza kontrolerako zein auditoretzetarako.

Kopia konpultsatuak lortzeko **Gasteizko Udalaren Argibide eta Erregistro Bulegora** –Olagibel kalea, 2– jo beharko da. Berdintasunerako Zerbitzuan ere konpultsatu ahalko dira, agiriaren jatorrizkoak eta kopiak aurkeztuta.

- 7.4. Berdintasunerako Zerbitzura zuzenduta bidali beharko dira agiri guztiak, eta Gasteizko Udaleko Argibide eta Erregistro Bulego Nagusian –Olagibel kalea, 2– zein herritarrei laguntzeko bulegoetako argibide eta arreta zerbitzuetan aurkeztu, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako moduan.

8. Aurkeztutako agirietako akatsak zuzentzea

Eskabideak behar bezala beteta ez badaude edo 6. oinarriko 6.1. atalean eskatzen diren agiriak erantsi ez bazaizkie, falta diren agiriak aurkezteko edo antzemandako akatsa zuzentzeko eskatuko dio Berdintasunerako Zerbitzuak elkarteari. **Hamar eguneko** epea emango zaio horretarako, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, eta agiriak aurkeztu ezean eskabidea bertan behera utzitakotzat joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 71. artikulua aurreikusita bezala ebatzi ondoren.

9. Informazioa eta aholkularitza

Berdintasunerako Zerbitzuak argibideak eta aholkularitza eskainiko dizkie deialdi honen baitan diru-laguntza eskatu nahi duten elkarteei. Kontsultak egin ahalko dira **945 16 13 45** telefono-zenbakira deituta edo helbide elektronikoa honetan: [**igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org**](mailto:igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org).

10. Diru-laguntzak emateko irizpideak

10.1. Berdintasunerako Zerbitzuak txostena egiten duelarik, irizpide hauek baliatuko ditu Gasteizko Udalak diru-laguntzak emateko:

RIZPIDEAK	PUNTUAK
Emakumeen eta gizonen aukera eta tratu berdintasunaren ikuspegia edo ikuspegi feminista sartzea diru-laguntza eskatzen duen elkartearen baitan	
Ikuspegi horren zeharkakotasuna elkartearen kulturari	4
Emakumeen eskubideak sustatu eta aldarrikatzen dituzten proiektuak garatzen elkarteak egin duen ibilbidea	3
Emakumeekiko diskriminazioa agerrarazten eta salatzen dituzten proiektuak garatzen elkarteak egin duen ibilbidea	3
Elkartearen zuzendaritza batzordeko ehuneko 40 baino gehiago emakumeak izatea	2
Elkarteen sarea indartzearekin loturiko alderdiak	
Jarduera edo proiektua planifikatzen eta/edo garatzen beste elkarte batek edo batzuek parte hartzea	4
Diskriminazio anizkunarekin eta lana eta familia uztartzen laguntzeko baliabideekin lotutako alderdiak	
Pobreziarekin edo gizarte bazterkeriarekin loturikoak sartzea	2
Adinarekin edo bizitza zikloarekin loturikoak sartzea	2
Dibertsitate sexualarekin loturikoak sartzea	2
Kulturartekotasunarekin loturikoak sartzea	2
Dibertsitate funtzionalarekin loturikoak sartzea	2
Lana eta familia uztartzen laguntzeko baliabideak eskaintzea (ordutegia iraupena, zaintza zerbitzuak,...)	2
Proiektuaren kalitate teknikoa dela eta	
Jarduerak edo proiektuak batzen dituen helburuen eta jardueren arteko koherentzia	3
Jardueraren edo proiektuaren bideragarritasun teknikoa. Lanerako metodologia, bitartekoak, egutegia...	1
Baliabide eta metodologia berritzaileak erabiltzea	1
Aurreikusitako ebaluazio-tresnak	2
Aurrekontuaren zehaztasun eta egokitzapen maila	1
Proposamenaren kalitate orokorra, genero ikuspuntua sartzeari dagokionez	5
Hartzaileekin loturiko alderdiak	
Zabalkunde-ahalmena duten taldeei zuzendua izatea	2
Ohikoak ez diren hartzaileei zuzendua izatea	2
Ongi zehaztutako hartzaileei zuzendua izatea	1
Hartzaileen parte hartzea jarduera diseinatzen eta/edo garatzean	2
Euskararen erabilera	
Euskararen erabilera maila jarduera gauzatzean	2
LOR DAITEZKEEN PUNTUAK, GUZTIRA	50

- 10.2.** Diru-laguntza jaso ahal izateko, aipatutako irizpideen arabera ezarritako gehienezko puntuazioaren % 40 lortu beharko dute aurkeztutako proiektuek gutxienez.

11. Diru-laguntzen zenbatekoa

- 11.1.** Diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da hiru mila (3.000,00) eurotik gorakoa izan jarduera bakoitzeko, eta onetsitako aurrekontuaren % 100eraino finantzatu ahalko da.
- 11.2.** 2014ko ekitaldian onuradun bakoitzari diruz lagun dakioken jarduera edo proiektu kopurua:
- a_** Irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarteek diru-laguntza bakarra jaso ahalko dute 2014an Martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) dela eta jarduerak antolatzeke.
 - b_** 2014ko ekitaldian emakume eta gizonen berdintasunean aurrera egiten laguntzeko jarduerak eta proiektuak garatzeko, onuradun bakoitzak ezingo du bi jardueratarako baino gehiagorako diru-laguntzarik jaso.
- 11.3.** Aurreko atalean adierazitako aurrekontua onesteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:
- a_** Diruz lagundutako jarduera edo proiektuak garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuek nahitaez 2014an eginak izan beharko dute, eta eroste kostuak inolaz ere ezingo dute izan merkatuko baliotik gorakoak.
 - b_** Elkartearen menpeko langileen ordainsarien gastuei dagokienez, proiektuan jasotzen diren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren langile espezializatuen ordainsariak baino ez dira joko diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat.
 - c_** Ezin izango da diruz lagundu daitekeen gastutzat sartu BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta eskatzailea zerga horren aitortpena egitera behartuta badago.
 - d_** Ezin izango dira gastutzat jo elkarte eskatzaileen azpiegiturekin, inbertsio-gastuekin edo aretoen mantentzearekin lotutakoak.
 - e_** Ezin izango dira diruz lagundu daitekeen gastutzat jo informatika materiala edo ekipa teknikoak erosteko egindakoak.
 - f_** Ezin izango dira gastutzat jo ohiko funtzionamendurako elkarrekin izaten dituen horiek.
- 11.4.** Baldin eta elkarte eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan aurreko atalaren ildotik diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, ez dira zenbatuko diruz lagundu daitezkeen gastuak zehazterakoan, aurrekontu hori hartuko baita kontuan ebazpen-proposamenean diru-laguntzaren zenbatekoa ezartzearen.
- 11.5.** Diru-laguntza emateko orduan aintzat hartutako egoera aldatzen delarik, baita arauetan baimentzen diren kasuetatik kanpo bestelako ekarpenik jasotzen delarik ere, elkarrekin Berdintasunerako Udal Zerbitzuari jakinaraziko dio, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da, diru-laguntza arautzen duen araudian aurreikusitako moduan.

12. Beste diru-laguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna

- 12.1. Deialdi honetan aurreikusitako diru laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituztenekin, gain-finantziatorik gertatzen ez den bitartean. Halakorik gertatzen bada, Berdintasunerako Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, diru-laguntzaren zenbatekoa behar den gehienezko mugaraino gutxitzearren.
- 12.2. Deialdi honetara aurkeztutako jarduera edo proiektua garatzeko beste administrazioetik edo erakunde publiko nahiz pribatutik (estatuko nahiz nazioarteko) diru-laguntza eskatu edo lortu duten elkarteek proiektua aurkezteko inprimakian (2. eranskina) adierazi beharko dute zein erakunde edo administraziori eskatu dioten, zenbat eta, kasua denean, zenbat eskuratu duten.
- 12.3. Diruz lagundutako jarduerarentzat bestelako finantzaketarik bada, ondorengo justifikazio ekonomikoan azaldu beharko da (zenbatekoa, jatorria, estali dituen gastuak,...).

13. Diru-laguntza ordaintzea eta gastuak justifikatzea

- 13.1. Bi zatitan ordainduko dira diru-laguntzak: diru-laguntza osoaren ehuneko 80 justifikazioa aurkeztu baino lehen ordainduko da. Gainerako ehuneko 20a jarduera bukatu eta gastuak justifikatu ondoren.
- 13.2. Diru-laguntza jaso duten elkarte onuradunek emandako diru-laguntza justifikatu beharko dute, justifikatzeko kontua aurkeztuz; **45 egun naturaleko epea izango dute, proiektuan aurreikusitako jarduerak bukatu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.**

Diru-laguntza jasotzen duten onuradunek diruz lagundutako jardueraren **aurrekontuaren ehuneko 100** justifikatu beharko dute, ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, hala xedatzen baitu diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikulua, eta Udalari egozten zaien gastuen kostua zehaztu beharko da.

Justifikatzeko kontuak alderdi hauek hartuko ditu barne:

a_ Egindako proiektuaren azalpen-txostena, lortutako emaitzen balioespena barne.

b_ Jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, alderdi hauek zehaztuta:

- Egindako gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, zeinean datu hauek zehaztuko baitira: hartzekoduna, zenbatekoa, emate-data eta ordainketa. Horretarako, onuradunak koadro bat erakutsi beharko du, non emandako diru-laguntzari dagozkien faktura guztiak kontzeptuaren arabera sailkatuko baitira (8. eranskina).
- Diruz lagundutako jarduerari dagozkion jatorrizko fakturak, edo faktura horien kopia konpultsatuak, eta ordain-agiri horiek laguntzak xede duen

helburua betetzeak sortu dituela egiaztatzeko agiria zein agiri horiek eskuragarri daudela egiaztatzeko agiria, 4. eranskinari jarraiki.

Jaso izanaren agiriak beste modu batez egiaztatu ezin diren gastuak zuritzeko bakarrik onartuko dira, eta, edonola ere, jaso izanaren agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaria edo profesionala izan, hala balitz faktura egin eta ematera behartuta bailegoke.

Jaso izanaren agiriak datu hauek jaso behar ditu:

- Jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbideak.
- Ekintza edo zerbitzuaren deskripzio zehatza eta guztizko prezioa.
- PFEZren atxikipena (Ogasunean egindako ordainketaren agiria erantsi).
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

Faktura eta jaso izanaren agiri hauei bankuko ordainketa ziurtagiria erantsiko zaie.

- Langileen gastuak nomina eta enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren TC2 agiriaren bidez zurituko dira. Nomina eta TC agiriarekin batera, gastua diruz lagundutako jardueri egozten zaiola egiaztatzeko zinpeko aitortpena aurkeztu behar da (denbora eta egotzitako kopurua zehaztu).
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren bestelako diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta.
- Proiektuaren baitan egindako programen, kartelen, azterlanen, argitalpenen eta idatziz zein ikus-entzunezkoen bidez egindako dokumentazio guztiaren ale bana, non Gasteizko Udalaren laguntza izan dela agertuko baita. Horretarako, udalaren logotipoa jarri beharko da, 5. eranskinean adierazten diren ezaugarriak aintzat harturik.
- PFEZren atxikipenik bada, Ogasunari atxikipen hori ordaindu izanaren egiaztagiria erantsi beharko zaio fakturari.
- Diru-sarrera eta gastuen balantzea, 9. eranskinari jarraiki. Balantze honetako gastuen taulan, bat etorri behar dute Udalak bere gain hartutako gastuei dagokien zutabeak eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoak.

13.3. Jarduera edo proiektua gauzatzeko **gonbidatuen ostatu eta mantenurako**, gehienez, **ehun (100,00) euro** eman ahalko dira **egun eta pertsonako, BEZa barne**.

13.4. Proiektuaren garapenaren ondorioz sortutako **protokolo gastuetarako** (gonbidatuak laguntzeko bazkari edo afariak, adibidez), gehienez, **eguneko hogeit (20,00) euro** emango dira, **BEZa barne**.

13.5. 2014ko ekitaldian benetan ordaindutakoak joko dira egindako gastutzat. Hori dela eta, fakturekin batera ordainketaren egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

13.6. Diruz lagundu den jarduera edo proiektua justifikatzeko aurkeztutako agiriak zuzenak ez direla edo baten bat falta dela ikusten badu Berdintasunerako Zerbitzuak antzemandako akatsa zuzendu edo falta dena aurkezteko eskatuko dio elkarte interesdunari; **10 eguneko epea izango du horretarako, jakinarazpena egiten zaion egunaren biharamunetik kontatzen hasita**. Horrela egin ezean, elkarteak Gasteizko Udalaren Diruzaintzan itzuli beharko du diru-laguntza gisa jasotakoa.

- 13.7.** Aurkezten diren fakturen zenbatekoak, guztira, ordaindutako diru-laguntza osoa hartzen ez bada, edo proiektua gauzaterik izan ez bada, elkarteak justifikatu gabeko diru-kopurua Gasteizko Udaleko Diruzaintzari itzuli beharko dio, Berdintasunerako Zerbitzuak zehazten duen kontu-zenbakian eta hark esandako moduan.

14. Onuradunaren betebeharrak

Deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradun diren elkarteek betebeharrak izango dituzte, nolani ere:

- 14.1.** Diru-laguntza ematea ekarri duen helburua bete eta proiektua gauzatea.
- 14.2.** Diru-laguntza ematea ekarri duten helburua, betebeharrak eta baldintzak bete direla justifikatzea Berdintasunerako Zerbitzuaren aurrean.
- 14.3.** Agiriak egiaztatzeko ekintzen mende jartzea, baita Gasteizko Udaleko Kontuhartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari nahiz eskumena aitortua zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitako mende ere.
- 14.4.** Diruz lagundutako proiektuaren baitako jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu nahiz eskuratuz gero, Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuari jakinaraztea. Hain zuzen ere, jakin bezain laster eman beharko da horren berri, eta, nolani ere, jasotako fondoak zertarako baliatu diren justifikatu aurretik.
- 14.5.** Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Berdintasunerako Zerbitzuari jakinaraztea.
- 14.6.** Aplikagarri den legediak eskatzen dituen kontabilitate liburuak edukitzea, edo, bestela, egiaztapen eta kontrol ahalmenak baliatzeko aukera bermatzen duten kontabilitate-egoerak.
- 14.7.** Jasotako funtsak zertarako baliatu diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduerak egitea gerta litekeen bitartean.
- 14.8.** Diru-laguntza jasotzen duten programen, jardueren, inbertsioen nahiz bestelako ekintzen finantziazioaren izaera publikoaren publizitate egokia egitea, euskaraz nahiz gaztelaniaz, Gasteizko Udalaren logotipoa agerian jarri, 5. eranskinean adierazten diren ezaugarriak aintzat harturik.
- 14.9.** Diru-laguntza ematean jarritako obligazio partikularrak betetzea.
- 14.10.** Diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen ez badira, jasotako diru publikoa itzultzea; halaber, dena delako jarduera kostatu dena baino gehiago jaso bada, soberakoa itzultzea.

15. Diru-laguntzak ematea

- 15.1.** Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko du deialdia, eta Gasteizko Udala izango da organo instruktorea. Haren bidez igorriko zaio laguntza emateko

proposamena Tokiko Gobernu Batzarrari, zeina kide anitzeko organoak egingo baitu, Jaien Plangintzaren eta Jaien zinegotzi ordezkariak edo ordezko izendatzen duenak, Berdintasunerako Zerbitzuko buruak edo ordezko izendatzen duenak eta zerbitzu horretako teknikari batek osatutakoak, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan zein Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

- 15.2.** Balioespen-batzordeak egindako ebazpen-proposamenean onetsitako diru-laguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean adierazitakoa baino txikiagoa bada, onuradunari eskatu ahal zaio eskabidea birformulatzeko, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen diru-laguntzaren arabera egoki ditzan. Kide anitzeko organoak eskabidea ontzat ematen duenean, Gobernu Batzarrari helaraziko zaio haren proposamena, dagokiona ebatz dezan.

16. Diru-laguntzak itzultzea

- 16.1.** Diru-laguntzak emateko ebazpenen deuseztasun edo deuseztagarritasunari dagokionez Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 36. artikuluan aurreikusitako kasuez gain, ondorengo kasuetan ere itzuli beharko dira jasotako diru-kopuruak –orobat galdatu ahal izango dira diru-laguntza ordaindu zenetik diru-laguntza itzuli beharra dagoela erabaki bitarteko atzerapen interesak:

- a_** Eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza eskuratzea galaraziko zuketenak ezkutatzuz eskuratu bada diru-laguntza.
- b_** Diru-laguntza ematea ekarri duen proiektuaren helburua –osorik nahiz zati bat– bete ez bada, diru-laguntza ematea ekarri zuen jokabidea nork bereganatu ez badu edo diru-laguntza ematean jarritako baldintzak bete ez badira.
- c_** Justifikatzeko obligazioa bete ez bada edo behar adina justifikatu ez bada.
- d_** Elkarre onuradunak 14. oinarrian xedatutako betekizunak ez baditu betetzen.

- 16.2.** Itzuli beharreko diru-kopuruak zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, eta, itzuli beharrekoa finkatutako epeetan itzultzen ez bada, premiamendu bidea baliatu ahal izango da.

- 16.3.** Jasotako diru kopuruak –osorik nahiz parte bat– itzuli beharra badago, dagozkien atzerapen interesak ere ordaindu beharko dira, behar izanez gero. Hori gorabehera, bidezko diren zigorrak jartzerik ere izango da.

Itzuli beharreko diru kopurua zehazteko (jasotako guztia edo parte bat), proportzionaltasun irizpidea baliatuko da.

17. Itzultzeko prozedura

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakora egokituko da emandako diru-laguntza itzultzeko prozedura.

18. Baliabideak

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, **bi hilabeteko** epean, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Aukeran, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko da deialdia onetsi duen organoaren beraren aurka, **hilabeteko** epean, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, **bi hilabeteko** epean errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, **sei hilabeteko** epean, ebazpena ustezkoa bada, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

19. Deialdiaren argitalpena

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean nahiz udalaren web orrian (www.vitoria-gasteiz.org) eta Berdintasunerako Zerbitzuarenean (www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna) argitaratuko dira bai deialdi hau, bai diru-laguntzak emateko ebazpena, euskaraz nahiz gaztelaniaz.

20. Interpretazioa

Gasteizko Udalak eta ez bestek izango du eskumena deialdia dela eta sortzen diren zalantzak argitzeko.

Oinarri hauek aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantza hartuko da kontuan, baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta bere araudia, zein uztailaren 21eko 887/2006 ED bidez onetsia baita, eta aplikagarri diren gainerako arauetan xedatutakoa.

Azken xedapena

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean deialdi hau.



1. eranskina: Diru-laguntzaren eskabidea. 2014ko ekitaldia

Lehen deitura	Bigarren deitura	Izena	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
NAN	Telefonoa	Elkartean duen kargua:	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Elkartea	IFK		
<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Helbidea	P.K.	Herria	Probintzia
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
E-posta	Telefonoa	Faxa	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Gasteizko Udalaren Herritar Erakundearen Erregistroan izena eman zuen eguna:		<input type="text"/>	eta zenbakia: <input type="text"/>

ADIERAZTEN DU:

Gasteizko Udalaren Berdintasunerako Zerbitzuak 2014ko ekitaldian Gasteizko udalerrian emakume eta gizonen berdintasunaren alorreko jarduerak eta proiektuak egiteko diruz laguntzeko deialdia ikusi duela eta bertan adierazitako oinarrien jakitun dela,

ESKATZEN DU:

Diru-laguntza hau emateko euro, jarduera edo proiektu hau bideratzeko
Proiektuaren kostua, guztira euro da. Horretarako eskatzen diren agiri guztiak erantsi dizkio eskari honi, eta benetakoak direla egiztatzen du.

Vitoria-Gasteizen, _____-(e)an

Izenpea eta eskabidea egiten duen elkartearen zigilua



Jarduera edo proiektuaren izenburua:

Justifikazioa (jarduera edo proiektua aurrera eramateko abiapuntutzat hartu den beharra):

Helburu orokorrak eta berariazkoak:

Jarduera edo proiektuaren deskribapena eta metodologia:

Zein eragin izango du jarduerak edo proiektuak berdintasun helburuan edo emakumeen jabetuntzan aurrera egiteko?

Jarduera edo proiektu hau gauzatzeko beste elkarte batzuekin batera lan egingo du elkarteak?



Neurri zehatzik hartu da jarduera edo proiektuaren hartzaileek era errazean parte har dezaten?

Neurri zehatzik hartu da jarduera edo proiektuaren zabalkundean edo garapean diskriminazio aniztunaren ikuspuntua eransteke?

Neurri zehatzik hartu da bitzitza pertsonala, lana eta familia uztartzen laguntzeko?

Gauzatuko den tokia

Egutegia eta iraupena:

Jarduera edo proiektua hizkuntza honetan egingo da:

Euskara

Gaztelaniaz

Euskaraz eta gaztelaniaz

Beste

Elkartearen aurkezpena, eta zuzendaritza batzordean zein elkartearen beste organo batzuetan dauden emakume eta gizonen ehunekoa, bai eta kideen arteko ehunekoa ere:

Zein neurri hartu edo hartuko da elkartearen erabaki organoetan emakume eta gizonen kopurua orekatua izan dadin?



Zein ekintza zehatz bideratzen du elkarteak bere antolakuntzan, funtzionamenduan eta jardunean genero ikuspegia kontuan hartzeko?

Zein esperientzia zehatz bideratu du elkarteak azken urteetan emakumeen berdintasuna eta/edo jabekuntza sustatzeko?



2. eranskina: Proiektua aurkezteko formularioa. 2014ko ekitaldia

PROIEKTUAREN AURREKONTUA

FINANTZAKETA PARTIDAK	Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuari eskatutako diru-laguntza	Erakunde eskatzailearen ekarpena	Beste erakunde publikoen edo pribatuen ekarpena, egoki bada	Jarduera edo proiektuaren kostu osoa
1. Materialak				
2. Ordainsariak (adib.: hizlari bati ordaintzea, jarduera baten dinamizatzaileari, erakusketaren gidariari, etab...) eta giza baliabideekin loturiko gastuak				
3. Bidaiak eta egonaldiak				
4. Publizitatea eta zabalkundea				
5. Itzulpena				
Zuzeneko kostuak, guztira				
1. Funtzionamendu gastu arruntak				
Zeharkako gastuak, guztira				
GUZTIRA				



3. eranskina: Zinpeko aitortpena (1). 2014ko ekitaldia

Lehen deitura	Bigarren deitura	Izena	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
NAN	Telefonoa	Elkartean duen kargua	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Elkartea	IFK		
<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Helbidea	P.K.	Herria	Probintzia
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
E-posta	Telefonoa	Faxa	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Gasteizko Udalaren Herritar Erakundearen Erregistroan izena eman zuen eguna		<input type="text"/>	eta zenbakia: <input type="text"/>

ZINPEAN AITORTZEN DU:

Jarduera edo proiektu hau egiteko:

harentzat eskatzen baita diru-laguntza, Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak 2013ko ekitaldian emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloko jarduerak eta proiektuak diruz laguntzeko egindako deialdiaren baitan, ordezkatzeko dudak erakundeak ez duela soldatapeko langilerik.

Eta hala ager dadin dagokion lekuan, izenpetu egiten du.

Vitoria-Gasteizen, _____-(e)an

Izenpea eta eskabidea egiten duen elkartearen zigilua



4. eranskina: Ordainagirien benetakotasunaren ziurtagiria (proiektua justifikatzeko eskatuko da). 2014 ekitaldia

Lehen deitura	Bigarren deitura	Izena	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
NAN	Telefonoa	Elkartean duen kargua	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Elkartea	IFK		
<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Helbidea	P.K.	Herria	Probintzia
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
E-posta	Telefonoa	Faxa	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Gasteizko Udalaren Herritar Erakundearen Erregistroan izena eman zuen eguna		<input type="text"/>	eta zenbakia: <input type="text"/>

EGIAZTATZEN DU:

Eransten diren faktura eta gastu egiaztagiriak jarduera edo proiektu hau gauzatzearen ondorioz sortu direla:

harentzat eskatzen baita diru-laguntza, Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak 2014ko ekitaldian emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloko jarduerak eta proiektuak diruz laguntzeko egindako deialdiaren baitan.

Eta egiaztagiri balioa izan dezan, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakoa betez, izenpetu egiten du.

Vitoria-Gasteizen, _____-(e)an

Izenpea eta eskabidea egiten duen elkartearen zigilua



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

5. eranskina: Gasteizko Udalaren logotipoa erabiltzeko arauak

www.vitoria-gasteiz.org

Alkatetza Saila / Berdintasun Zerbitzua

igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalaren logotipoa diru-laguntza jaso duen elkartearen logotipoaren maila berean jarri beharko da, proportzio hauek zainduz:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Helbide elektronikoa honetan eska daiteke logotipo hori: igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org, eta 945 16 13 45 telefonoan.



6. eranskina: Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena. 2014 ekitaldia

Lehen deitura	Bigarren deitura	Izena	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
NAN	Telefonoa	Elkartean duen kargua	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Elkartea	IFK		
<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Helbidea	P.K.	Herria	Probintzia
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
E-posta	Telefonoa	Faxa	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Gasteizko Udalaren Herritar Erakundearen Erregistroan izena eman zuen eguna		<input type="text"/>	eta zenbakia: <input type="text"/>

GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO:

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskura ditzan.

Eta egiaztagiri gisa balio dezan, izenpetu egiten du.

Vitoria-Gasteizen, _____-(e)an

Izenpea eta eskabidea egiten duen elkartearen zigilua



7. eranskina: Zinpeko aitortpena (2). 2014ko ekitaldia

Lehen deitura	Bigarren deitura	Izena	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
NAN	Telefonoa	Elkartean duen kargua	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Elkartea	IFK		
<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Helbidea	P.K.	Herria	Probintzia
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
E-posta	Telefonoa	Faxa	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Gasteizko Udalaren Herritar Erakundearen Erregistroan izena eman zuen eguna		<input type="text"/>	eta zenbakia: <input type="text"/>

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Zinpean aitortzen du berak ordezkatzeko duen elkarte ez dagoela administrazio-bidean edo bide penalean zigortuta eta laguntza publikoak eskuratzeko aukeratik apartatuta, ezta horretarako gaitasunik gabe uzten duen inongo legezko debekuren menpe ere –sexu arrazoiengatiko diskriminazioa egitearen ondorio direnak barne, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen ildotik–; Gasteizko udalerrian 2014ko ekitaldian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko jarduerak eta proiektuak bideratzeko diru-laguntza deialdiari dagozkionetarako egiten du zinpeko aitortpen hori.

Eta hala ager dadin, dagokion lekuan izenpetu egiten du.

Vitoria-Gasteizen, _____-(e)an

Izenpea eta eskabidea egiten duen elkartearen zigilua



8. eranskina: Jarduera edo proiektua finantzatzeko erabilitako funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotakoan justifikazioa (DLOko 30.4 art.). 2014 ekitaldia

Lehen deitura	Bigarren deitura	Izena
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
NAN	Elkarte honen izenean eta hura ordezkatzuz	IFK
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Elkartea		IFK
<input type="text"/>		<input type="text"/>

Gasteizko Udalak emandako diru-laguntzaren onuraduna baita, jarduera edo proiektu hau bideratzeko

jarduera edo proiektu horretarako baliatu diren baliabide propioak nahiz beste erakunde batzuetatik jasotakoak justifikatze aldera –diru-kopuruak, horien jatorria eta zertan erabili diren–, zerrenda honetan adierazten diren gastuak aurkezten ditu

I- Eusko Jaurlaritzaren ekarpena / AFaren ekarpena / Beste erakunde batzuen ekarpena (adierazi zein):

Zk.	Jaulkitzailea	Data	Azalpena	Zenbatekoa
1				
2				
3				
4				
5				
6				
GUZTIRA				

II- Baliabide propioak

Zk.	Jaulkitzailea	Data	Azalpena	Zenbatekoa
1				
2				
3				
4				
5				
6				
GUZTIRA				

Vitoria-Gasteizen, _____-(e)an

Izenpea eta eskabidea egiten duen elkartearen zigilua

Ematen ari zaren datu pertsonalak "Kulturako diru-laguntzak" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Fitxategi horren titularrak udala bera da, eta pertsonari nahiz erakundeei ematen zaizkien diru-laguntzak kudeatzea du helburu. Deialdia ebatzi eta gero Gasteizko Udalaren iragarki-oholean eta web orrian argitaratu ahalko dira. Interesdunak bere datuak ikusi, aldatu edo ezetzatzeko eskubideez baliatu ahalko du, Gasteizko Udalaren argibide bulegoetakoren batera joanda.



9. eranskina: Jarduera edo proiektuaren diru-sarrera eta gastuen balantzea. 2014 ekitaldia

DIRU-SARRERAK

Gasteizko Udalaren diru-laguntza	_____
Beste administrazio batzuen diru-laguntza	_____
Erakunde eskatzailearen ekarpena	_____
Erabiltzaileen ekarpena	_____
Beste erakunde batzuen ekarpena	_____
Diru-sarrerak, guztira	<input type="text"/>

GASTUAK

MOTA	Udala	Entitatea	Beste admin.	Guztira
Langile gastuak	_____	_____	_____	_____
Materiala erostea	_____	_____	_____	_____
Garraioa eta dietak	_____	_____	_____	_____
Hornidura	_____	_____	_____	_____
Zerbitzu profesionalak	_____	_____	_____	_____
Inbertsioak	_____	_____	_____	_____
Besterik	_____	_____	_____	_____
			Gastuak, guztira	<input type="text"/>

Vitoria-Gasteizen, _____-(e)an

Lehendakaria edo finantza arduraduna